

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresako bazkideak Igor, Olatz, Naiara eta Ione dira. Horietaz gain, gure enpresak ondo funtzionatu dezan eta proiektua aurrera atera dadin, beharrezkoa izan dugu beste pertsona batzuen laguntza. Horretarako, beharrezkoak izan ditugu: langileak; informatikoak, itzultzailea...

Hasteko, guk sortutako aplikazio honek, iOS, Android eta Windows-entzako balio du, horrela gure bezeroari erosketa errazten diegu, eta beraz hauekin kolaborazioa egin behar izan dugu.

Horrez gain, liburuen editorialekin kolaborazioak egin ditugu, beren edukia gure bideotan jartzeko, esate baterako editorial horiek: ANAYA, Santillana, Burlington books, Mc Graw... izan dira.

Gure aplikazioa ezagutarazteko, publizitatea egiteko pertsona bat kontratatu behar izan dugu, marketing digital kontuetan espezializatutako pertsona bat zehazki.

